

## Patxi Uribarren

Patxi Uribarren Leturiaga Aramaion jaio zen, 1942an. Karmeldarra da. Filosofia eta Letretan lizentziatua -tesi txikia egin zuen *Aramaioko toponimiari* buruz- eta Teologian lizentziatua. Bizkaiko Foru Aldundian itzultzaile ofiziala izana da, 1983tik 2007ra arte.

Euskararen aldeko jarduera anitzetan esku-hartu du. 1965ean, *Gogoz* aldizkaria abiatzen lagundu zuen eta zuzendari ere izan zen 1968ra arte. Garai hartan, Karmeloko euskal mezarako materiala prestatzen, ipuinak euskaratzen eta alfabetatzen-jardunean jardun zuen, Santutxuko gau-eskoletako koordinatzaile izan zelarik hamabi urtez.

1976an Deustuko Irakasle Eskolan sartu zen eta euskararen irakaskuntza antolatzea izan zen bere eginkizunetako bat. 1978an ere euskal filologia eta euskal darrak jartzeko ekinean parte hartu zuen. HEZI Hezkuntza Zientzien Institutuaren eskutik, goi mailetako ikasleentzako udako ikastaro trinkoak prestatu zituen, baita titulurik gabeko irakasleentzako karrera egiteko bideak bultzatu ere. Alfabetatze, dialektologia eta morfosintaxi klaseak eman ditu.

‘Bostak Bat’ kultur elkarteko sortzaileetariko bat da. Arabako Aldundiko Kultura Batzordeko kide, 1971ko udazkenean izendatuta.. ‘Klasikoak’ liburu-sortarako itzuli beharreko liburuak aukeratzeko sortutako batzordeko kide. Euskararen Kontseilua erakundearen sortze-lanetan eta bertako kide hasieratik (1998) *Karmel* aldizkariaren izenean.

EIE/Euskal Idazleen Elkarteko kide da (1982tik), baita EIZIE/Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteko kide ere, 1987tik.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1971n. Erakundearen bertan, zenbait batzordetan parte hartu izan du, batzordekide lanetan edota aholkulari lanetan: Irakasletoa, Lexikologia Erizpideen Finkapena (LEF), Onomastika, Alfabetatze-Euskalduntzea, Elebitasun Harremanak, Oinarrizko Euskara.

### ➤ Ikerlanak (garrantzitsuenak):

- Elizkizunetarako irakurgai-liburuen ikerketa (1984): hiru bertsioren konparazioa.
- ‘Bostak bat’ taldeko kideekin batera, zenbait ikerketa puntual talde-lanean (1984-1986 eta 1993) hiztegiak prestatzeko.
- Lino Akesoloren lexikoaren ikerketa (1995).
- Azkueren hiztegiko hitz komunak bilketa eta azterketa (2005), Txomin Solabarrieta lankidearekin batera.
- *Oinarrizko Hizkuntza baliabideen azterketa* (2006) zuzendu zuen, 38 oinarrizko euskal iturri aztertuz.
- *Euskalkie buruzko ikerlanen emaitzak gizarteratzea* (2006) ikerketa zuzendu zuen, Bizkaiko 13 herritako lexikoa konparatuz.
- “Bostak bat” taldearen datu-basea, Euskaltzaindikoko Euskara Batuko lantaldeak proposatutako sarrerekin erkatu eta horien arabera jartzeko ikerlana egin du (2007-2008), 3000 HIZTEGIA horren arabera zuzendu eta egokitzea bideratuz.
- *Euskal Aditza – Trinkoa eta laguntzailea- (Batua – Bizkaiera – Zuberera)* (2005-2006). Aditza (adibide eta guzti) hiztegi eran kontsultatzeko bideak ematen dituen lanaren prestatzailea, zuzentzailea eta, bertan jasotzen diren eskemen egilea izan da.

➤ Idazlan batzuk:

Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkari ofizialean eta IKER sortan hainbat argitaratu ditu. Bestalde, ‘Bostak bat’ Kultur Taldean argitalpenetan parte hartu du:

- 1983: *Sinonimoen Hiztegia* (I). Adorez 1. (8.964 sarrera).
- 1986: *Euskararako Hiztegia*. Adorez 2. (mota honetako lehena).
- 1988: *Sinonimoen Hiztegia* (II). *Antonimoduna*, Adorez 3. (19.783 sarrera).
- 1990: *Euskararako Hiztegia*. *Oinarrizkoa*, Adorez 4.
- 1991: *Eskola Hiztegia*. *Irudiduna* (I). Adorez 5 (haurrentzat prestatua)
- 1993: *Europa Hiztegia*. *Eskola berrirakoa*. Adorez 6
- 1996: *Diccionario 3000 Hiztegia* (I), Adorez 7 (elebiduna)
- 1999: *Sinonimoen Hiztegia* (III), *Antonimoduna*, Adorez 8. (36.703 sarrera)
- 2001: *Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia*. Adorez 9 (elebiduna)
- 2002: *Diccionario 3000 Hiztegia* (II), Adorez 7 (elebiduna; berriztatua)
- 2005: *Eskola Hiztegia*. *Irudiduna* (II). Adorez 5 (zeharo berriztatua)
- 2006: *Euskal Aditza*. Adorez 10 (Patxi Uribarrenek hiztegi-eran antolatua)

*Karmel* aldizkarian, iritzi, ikerketa eta dibulgazio lanak argitaratu ditu, baita itzultze-euskaratze-egokitze lanak egin ere. *Karmel* sortako hainbat lanetan ere parte hartu du.